

2026-2028 ALDIAN OINARRIZKO IKERKETAKO ETA/EDO IKERKETA APLIKATUKO PROIEKTUAK EGITEKO LAGUNTZAK (OIAP 2026)

GARRANTZITSUA:

Euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeek jarduerak babesteko 2026-2029 laguntzen deialdian, **EHUK** ikerketa-taldearen eskaera batean **sartuta ez dauden** ikertzaile-taldeko kideen eskaerak **babalatuko ditu bakakarrik**. Erabaki hori Eusko Jaurlaritzarekin adostu da.

Deialdiaren helburua:

2026-2028 aldian oinarrizko ikerketako edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak deitzea eta horien oinarri arautzaileak onartzea I. eranskinean jasotako baldintzetan.

Proiektuen betekizunak:

Proiektuak 1 eta 3 urteko ordainsari oso artean gauzatzeko eskatu ahal izango dira.

Proiektuak 2026eko ekitaldian hasiko dira gauzatzen, emandako dirulaguntza onartutzat jotzen den unean. Egikaritze-fasearen amaiera proiektuan aurreikusitako iraupenaren arabera izango da, baina administrazio-jarduketak 2029ko ekainaren 30a baino lehenago amaitu behar dira.

Pertsonal ikertzailearen betekizunak:

- **Ikertzaile Nagusia**

Doktore titulua izatea.

UPV/EHUrekin kontratua, proiektuaren iraupen osorako eta 4 hilabete gehiagorako.

Proiektuko ikertzaile nagusiak jardun osoko dedikazioa eskaini beharko dio, eta zerbitzu aktiboan izan beharko da. Era berean, ezinbestekoa izango da eskatzaileak irakasle edo ikertzaile plaza bat betetzea kontsolidazio-bidean, eta entitate eskatzailearekin lotura izatea ikerketa-proiektua amaitu arte gutxienez.

Zehazki, programa edo kategoria hauetako langileak onartuko dira: Ikerbasque Research Fellow programa, irakasle laguntzaile doktorea, irakasle atxikia, Ramon y Cajal programa, Juan de la Cierva programan sartzea, Miguel Servet programa.

Irakasle atxiki, laguntzaile doktore edo Ikerbasque Research Fellow plaza bat betetzen duten ikertzaileen kasuan, baldin eta plaza hori ikerketa-proiektua amaitu baino lehen amaitzen bada, ikerketa-taldeko kide gisa sartu ahal izango dira, baldin eta egiaztatzen badute ikerbasquek (Ikerbasque Research Associate Professor), Unibasqek (Irakasle Osoak, Irakasle Agregatuak, Ikertzaileen Irakasleak, Ikertzaile Doktoreak) edo ANECAk (Unibertsitateko Katedradunak, Irakasle Titularrak, Irakasle Kontratatu Doktoreak) emandako ebaluazio positiboa edo akreditazioa

Eusko Jaurlaritzak ez du IN-aren kontratua luzatzeko konpromisorik onartuko.

- **Gutxieneko Ikertzaile-taldea**

3 pertsonak osatuko dute, eta horietako bik, gutxienez, doktore-titulua izan beharko dute, eta horien artean INa sartu beharko da.

UPV/EHUrekin kontratua, proiektuaren iraupen osorako.

Eusko Jaurlaritzak ez du Gutxieneko Ikertzaile taldeko pertsonalaren kontratua luzatzeko konpromisorik onartuko.

- **Ikertzaile taldea**

Gratu, Lizentziatura, Ingeniaritza edo Arkitektura titulua.

Kontratuaren iraupena proiektuan parte hartzekoa baino laburragoa bada, kontratua mantentzeko konpromisoa eskatu beharko dute.

Ikerkuntzaren arloko Errektoreordetzak konpromisoa igortzeko aukera aztertuko du, ikertzailearen egoera aztertu ondoren.

Taldea osatzeko arau orokorrak

- Ikertzaile-taldeko kideak **ez dira** A edo B talde gisa egiaztatutako ikerketa-talde batekoak izango, baldin eta euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldean jarduerak bultzatzeko diru-laguntzak 2026-2029 (GIC) deialdian egiaztatuta badaude eta deialdi horretan dirulaguntza jaso badute.
- Ikertzaile-taldea osatzen duten ikertzaileek urtean gutxienez **1.400 ordu** eman beharko dituzte proiektuan, eta talde bakoitzeko ikertzaile nagusiak urtean gutxienez **420 ordu** eman beharko ditu.

Erantzukizuneko aitoren sinatu baten bidez, parte hartzen duen ikertzaile bakoitzak deialdi honetan eskatutako proiektua garatuko den urteetarako onartu edo eskatutako beste proiektu batzuetan konprometitutako orduak adieraziko ditu, eta proiektu honetan esleitu eta konprometitutako jarduerak egiteko behar beste ordu izan beharko du.

- Ikertzaile nagusi beraren eskaera bat baino ez da onartuko.
- Ikertzaileek ezin dute deialdi honetako eskaera batean baino gehiagotan parte hartu.
- Ezin izango dute deialdi honetan parte hartu aurreko proiektuetan parte hartu duten ikertzaileek, baldin eta eskabidea aurkezteko datan beren jarduerak oraindik itxi ez badituzte, bete gabeko betebeharrak dituztelako, azken txosten zientifikoa eta egindako publikitatea izan ezik.
- Finantzatutako proiektu bat onartutako amaiera-data baino lehen bertan behera uzten bada, parte hartu duten ikertzaileek ezingo dute beste proiektu berri batean parte hartu, harik eta hasierako proiektu hori onartu zen unean aurreikusitako amaiera-data bete arte. Alderdi hori 18.2 artikuluan deskribatutako gutxieneko betekizun galdagarritzat hartu denez, inguruabar horietan gertatzen diren proiektu-eskaerak ukatu egingo dira, eta gerora gertatutako ez-betetzeak dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

- Erantzukizunpeko adierazpen sinatu baten bidez, parte hartzen duen ikertzaile bakoitzak deialdi honetan eskatutako proiektua garatuko den urteetarako emandako edo eskatutako beste proiektu batzuetan konprometitutako orduak adieraziko ditu, eta proiektu honetan esleitutako eta konprometitutako jardueri ekiteko nahikoa ordu izan beharko ditu.
- Deialdiko eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen kontratatu beharko ditu entitate eskatzaileak ikerketa-taldeko kideak. Halaber, ikertzaile nagusiak kontratu bat izan beharko du entitate eskatzailearekin, proiektuaren iraupen osoa baino luzeagoa, eta hor sartuko da egikaritze-fasea eta 4.1 artikuluan zehaztutako lau hileko aldi gehigarria.
- Ikerketa-talde minimoa osatzen duten beste bi ikertzaileek, gutxienez proiektuaren iraupen berdineko aldi eta dedikazio baterako kontratatu egon beharko dute.
- Taldeko gainerako kideek proiektuaren iraupen osoa baino iraupen laburragoko kontratuak izan ditzakete, baldin eta haien loturak erabat estaltzen badu proiektuan aurreikusitako parte hartzeko aldia edo estaldura hori bermatzen duen erakunde-konpromisorik badago
- Doktorego-tesia egiteko kontratatutako pertsonaren kasuan, hura finantzatzen duen erakundearen izendapena aurkeztu beharko du, finantzaketa-aldi osoa adierazita, bai eta deialdi honetan eskatutako proiektuan jarduteko baimena ematen dion urteko orduak adierazten dituen ziurtagiria ere. Prestatzen ari den doktoratu aurreko ikertzaile bakarra sartuko da proiektu-eskabide bakoitzean.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak.

Eskabidearekin batera aurkeztu behar den proiektuaren aurrekontua epigrafeetan eta urteka egituratuko eta justifikatuko da, honako kontzeptu hauen arabera:

a.1.- Doktore ez diren laguntzaileak.

Zenbateko bat finantzatu ahal izango da proiektu bakoitzeko, laguntzaile bakar bat ordaintzeko urteko. Kontratu horien gutxienerako iraupena urtebetekoa izango da.

5.2.a.1 artikulua arabera; "**Doktorea ez den langile laguntzaile** gisa kontratatzeko, lanaldi oso baterako, **25.721 euroko** dirulaguntza emango da (19.380,40 euro nominaren gordina) laguntzaile beraren lehenengo eta bigarren urtekoetan, eta **26.807 eurokoa** (20.467 euro nominaren zenbateko gordina) hirugarren urtekoan."
"**2.018,66** euroko gehigarri bat ezartzen da jarduera uzteagatiko kalte-ordaina estaltzeko".

Honela kontratatu ahal izango da:

Kontratu mugagabea (ZTBL 23.bis art) ez doktorea

UPV/EHU 23bis artikulua kontratuaren aurreikusitako kostua 2026erako 50.067 eurokoa da. Kostu horiek % 4,5eko igoera aurreikusi da 2027rako, eta % 2koa 2028rako.

Doktore-aurreko kontratua (ZTBL 21.art.): **

UPV/EHU doktore ez diren ikertzaileak kontratatzeke aurreikusitako kostuak, ZTBL 21 artikulua bidez 2025erako hauek dira:

1 URTE(GUTXIENEZ)	2026	2027
1. eta 2. URTEA	29.000	30.000
3. U R T E A	31.000	32.000
4. U R T E A	38.200	41.000

Kostu horiek % 4,5eko igoera aurreikusi da 2027rako, eta % 2koa 2028rako.

**Garrantzitsua da azpimarratzea kolaboratzaile-
kontratu hori beste proiektu hautagarri batzuekin batera finantzatu beharko dela (PES, taldeak, etab.). Laguntzak kontratu horren benetako kostuaren zati bat baino ez du estaltzen.**

**** Gutxi gorabeherako kalkulua da; kostua hautatutako pertsonaren arabera kalkulatu da (antzinatasuna, hiru urtekoak, atzerapenak...)**

a.2.- Doktore diren laguntzaileak.

Zenbateko bat finantzatu ahal izango da proiektu bakoitzeko, laguntzaile bakar bat ordaintzeko urteko. Kontratu horien gutxieneko iraupena sei hilabetekoa izango da.

Laguntzaile horrek doktore-titulua izan beharko du, bera kontratatzea aurreikusten den urtean erdietsitako doktore-titulua.

5.2.a.2 artikulua arabera; "**Doktore diren laguntzaileen** kasuan, lanaldi oso baterako, **44.658 euroko** dirulaguntza emango da (33.489 euro nominaren zenbateko gordina) Proiekturako dedikazioa txikiagoa balitz, zenbatekoa proportzionala izango litzateke urteko dedikazio bakoitzeko."

"**2.202** euroko gehigarri bat ezartzen da jarduera uzteagatik kalte-ordaina estaltzeko".

2026rako UPV/EHU doktore diren LCTI artikulua 23.bis bat kontratatzeke zenbatetsitako kostuak **57.500 €** dira. **

Kostu horiek % 4,5eko igoera aurreikusi da 2027rako, eta % 2koa 2028rako.

**Garrantzitsua da azpimarratzea kolaboratzaile-
kontratu hori beste proiektu hautagarri batzuekin batera finantzatu beharko dela (PES, taldeak, etab.). Laguntzak kontratu horren benetako kostuaren zati bat baino ez du estaltzen.**

**** Gutxi gorabeherako kalkulua da; kostua hautatutako pertsonaren arabera kalkulatu da (antzinatasuna, hiru urtekoak, atzerapenak...)**

b) Material inbentariagarria.

20.000 eurotik beherako kostua urtean, BEZik gabe.

Ez dira sartzen altzariak, instalazioak eta ekipo informatikoak.

Diruz lagundu daitekeen gastua 15.000 eurokoa edo handiagoa bada (BEZik gabe), edo kontratazioaren arloko araudia eguneratzearen ondorioz ezartzen den zenbatekoaren adinakoa edo handiagoa bada, entitateak gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko dizkie eskaintzak, ekipamendua eskuratzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta ekipamenduaren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakoak egiten, ematen edo hornitzen dituen behar beste entitate, edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada. Halaber, aurkeztutako eskaintzen artean aukeratzeko –justifikazio-unean edo, hala badagokio, dirulaguntza-eskabidean aurkeztu beharko dira–, efizientzia-eta ekonomia-irizpideei jarraituko zaie, eta ez bada aukeratzeko eskaintza ekonomiko onuragarriena, berariaz justifikatu beharko da erabaki hori memoria batean (Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen 20/2023 Legearen 30.3 artikulua).

c) Material suntsikorra.

Bulegoko material orokorraren finantzaketa kanpo geratzen da.

d) Bidaiak

Proiektuko jardueren garapenaren ondorioz egindakoak. Bidaia-gastuak onartuko dira proiektua gauzatu den azken urtean proiektuan lortutako emaitzak azaltzeko, eta ikerketa-taldeko pertsona bakar batentzat bakarrik.

e) Bestelako gastuak.

Finantzatutako urteko aurrekontuaren % 5eko gehieneko balioarekin, betiere proiektuaren helburuak garatzeko beharrezkotzat jotzen badira.

Guztira gastuaren % 40 baino gehiago egikaritzen ez bada gutxienez eska daitekeen betekizuntzat hartzen denez, dirulaguntza-eskubidea galdu egingo da (18.2 oinarria).

Ebaluatze irizpideak.

Ikertzaileen curriculum vitaeren balorazioan, azken 6 urteetako merezimenduak soilik aurkeztuko dira.

Baldin eta hautagaitza batean ikerketa-lana eten egin bada egoera hauetakoren baten ondorioz, hots, iraupen luzeko aldi baterako lanerako ezintasuna; amatasuna; aitatasuna; edoskitze-aldiko arriskua; adopzioa edo harrera; edo liberazioagatik, honako kargu hauetakoren bat betetzeko bada: unibertsitateko pertsona bakarrek kudeaketa-karguak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko zuzendaritza-karguak eta administrazio publikoetako karguak, bada, halakoetan, ziurtatutako etenaldi horrekiko proportzioan luzatuko da ebaluatze ikerketa-jardueraren aldia, non eta ez den 10 astetik gorako amatasun edo aitatasunagatik etenaldia (kasu horretan, ebaluatze aldia urtebete luzatuko da seme edo alaba bakoitzeko).

Eskaerak aurkezteko prozedura:

Eskaera ondoko esteka honen bitartez bete behar da:

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2026/oiap-2026/web01-tramite/eu/>

Eskaerak UPV/EHUn aurkezteko prozedura:

Ikertzaile nagusiak ondoren zehazten den dokumentazioa lgz.deialdiaautonomikoak@ehu.es helbide elektronikora bidali beharko du gaian "PIBA 2026" adieraziz.

Ez da bermatzen legezko ordezkariaren sinadura, eskatutako dokumentazioa ezarritako epeen barruan aurkezten ez den kasuetan

Eskaerak aurkezteko epea

2026ko maiatzaren 11tik ekainaren 10era

Eskaerak UPV/EHUn aurkezteko prozedura (barne epea):

AZKEN EGUNA	IZAPIDEA
2026/05/26	<p>Honako agirien bidalketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> – I. eranskina. – Ikertzaile nagusiak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena. – Baterako finantzaketarako konpromisoa, aurrekontuan ikertzaileak kontratatzeke laguntza eskatu den kasuetan. <p>Barne dokumentu horiek Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eskuragarri daude: https://www.ehu.eus/eu/web/ikerketaren-kudeaketa/deialdiak-autonomia-erkidegoko-deialdiak</p>
2026/06/02	<p>Honako agirien bidalketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Eskaera eta Proiektuaren Memoria. – Parte hartuko duen ikertzaile bakoitzak sinatutako agiria (erantzukizunpeko adierazpena). Agiri horretan adieraziko da deialdi honetan eskatutako proiektua garatuko den urteetan aktibo dituen proiektuei zenbat denbora eskainiko dien, bai eta eskatutako proiektuari bakoitzak zenbat denbora eskainiko dion ere. <p>Dokumentu horiek aplikaziotik ateratzen dira, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikokoaren esteka honetan dagoen eskaera bete ondoren: https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2026/oiap-2026/web01-tramite/eu/</p>
2026/06/10	Deialdiaren bukaera